

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Rockzaleen ospakizuna

Larunbat honetan, Andoingo Rock Jaialdia izango da Andoainen, egun osoan / 2-3

Memoriaren ibilbidea
Urnietan, larunbat honetan, Juankar Alberdiren omenezko egitarauan / 6

Mikel Iturria
Euskaltel Euskadi txirrindulari taldeko kideari elkarrizketa / 8-9

Andoingo Agustin Leitza
xake taldea sortu zela 50 urte beteko dira aurten / 10-11

Euskadiko txapelduna
den Nura Ariztimuño Andoingo boxeolariari elkarrizketa / 12

"Egape bidaiak"
Egape Dantza Taldearen ikuskizuna, igande honetan, Sarobe antzokian / 14

 **EKAINAK 13 OSTEGUNA 17:30EAN** | SAGARDOAREN TXAPELKETA 2 0 2 4
GALARRETA JAI ALAI HERNANI

01. partida (3 setera)
BEREZIARTUA ANSA II · ZUBIRI vs
ABURUZA URRIZA · MARTIRENA

02. partida (3 setera)
Alarrena SEGUROLA · LARRAÑAGA vs
Alarrena EZKURRA II · AZPIROZ

03. partida (3 setera)
Alarrena LOITEGI · BARRENETXEA IV vs
GURUTZETA ALDABE · JUANENEA

 SARRERAK ENTRADAS





Gailu taldea Nafarroa plazan, aurreko Rock Jaialdian. AIURRI

Rock jaialdia, San Juan jaien atarikoa

Herriko jaien aurreko asteburuan, Andoaingo Rock Jaialdia ospakizun modukoa da festazaleentzat. Bereziki, goizalderarte luzatuko delako kontzertua eta, gainera, txosnagunea zabalik izango delako

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eguraldia lagun izanez gero, ospakizun betea izango da larunbat honetakoa. Festarako bidelagun aparta baita rock-a.

"Aperitif" saioak, eguerdian

Hiru euskal talde ariko dira, eguerdian hasita. Eta, jarraian, bi disko jartzaile Goikoplazan.

12:00 | Indabe, Zumea plaza.

13:00 | Amorante, Plaza Morea.

14:00 | Munlet, Goikoplaza.

15:00 | Olibia DJ, Goikoplaza.

16:00 | Jessi Mary, Goikoplaza.

18:00 | Ithaka

Orion eta Zarautzen du abiapuntu taldeak. "Biluzten" diskoa aurkezten ari dira eta honako estilo hauek lantzen dituzte:

post-punka, alt-rocka, stonerra, post-rocka eta antzerako soinuak.

19:05 | Pinpilinpussies

Ane Barcena (bateria, gitarra eta abeslaria) durangarrak eta Raquel Pages (bateria, gitarra eta abeslaria) tarragonarrak sorturiko garage-pop post-punk musika talde euskaldun-katalana da.

20:10 | Howlin' Jaws

Paris hiriburuan sorturiko garage taldea da. Djivan Abkarian baxujolea eta kantaria da, eta alboan diru, Lucas Humbert gitarrajolea eta Baptiste Leon baterijolea. "Half Asleep Half Awake" disko berriena aurkeztuko dute Andoaingen.

21:50 | The Bug club

Gales aldeko Caldicot herrian sorturikoa da. Sam Willmet (gitarra/ahotsa), Tilly Harris (baxua/ahotsa) eta Dan Matthew (bateria) hirukoteak eratu zuen 2016an.

23:15 | Goat Girl

Londreseko post-punk taldea da. Lottie Pendlebury abeslari eta gitarrista nagusiak, Ellie Rose Davies gitarristak, Holly Mullineaux baxu jotzaileak eta Rosy Jones bateriak osatzen dute.

00:40 | Tramhaus

Rotterdameko lagun talde baten proiektu sonikoa da, post-punkaren ertzean dabilena.

Larunbat honetarako eskaintza



Zumea plazan emanaldia, iazko edizioan. AIURRI

Emanaldiak, larunbat eguerdian Zumea plazan, Plaza Morean eta Goikoplazan kontzertu bana eskainiko da, "Aperitif saioak" izenburupean. Euskal Herriko taldeak izango dira, gainera: Amorante, Indabe eta Munlet.



2022ko rock jaialdiko irudia. AIURRI

Hitzordu nagusia, Nafarroa plazan Jende gehien jasotzen duen eguna da, plazan eta inguruan. Andoaingo herritarrez gain, inguruko eta urrutiko rockzaleak elkartu ohi dira. Aurten ere, arratsaldeko 18:00tan hasita, jendetza espero da.



Lehen esperientzia Bekoplazan izan zen, Santa Krutz jaietan. AIURRI

Pizzak, eskaintza berria, Txosnagunean Santakruzetzan egin bezala, Sanjuanetan eskaintza berezia eskainiko dute txosnagunean. Pizzak eta krocketak eskainiko dituzte, eta lehen aukera larunbat honetako rock jaialdian izango da.



Gatibu taldea zuzenean ariko da jaietako larunbatean. AIURRI

Ekainaren 21etik 25era San Juan jaiak ospatuko dira

Amaitzar da ikasturtea eta, horrekin batera, Sanjuanen hasiera Andoainen. Bost egunez udalerria ospakizunetan murgilduko da. Goikoplaza eta Nafarroa plaza izango dira jaietako bilgune nagusiak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Talde ezagunen kontzertuak eta tradiziozko ekitaldiak kateatuko dira, ohi bezala, Andoaingo jaietan. Askoren artean, aipa ditzagun hainbat. Ostiral arratsaldean abiatuko dira jaiak, Lebiton konpartsarekin eta Hurria-Sahara elkartearen pregoiarekin. Larunbatean, Andoaindarra elkarteko danborrada kalez kale ibiliko da eta Joseba&Bakartxo akademiak dantza erakustaldia eskainiko du. Igandean, ezinbestean, San Juan sua piztuko da. Eta, horren aurretik, kutsu be-

rezia izango duen soka-dantza, izan ere, tradiziozko dantza hori berreskuratu zutenetik 25 urte bete baitira. Astelehenean, San Juan eguna ospatuko da. Herri kirolak, Axeri-dantza eta bertso emanaldia ohikoak dira egun seinalatuan. Ekainaren 25ean amaituko dira jaiak. Astearte arratsaldean, haur danborradan parte hartuko dute herriko ikastetxeetako ikasleek. Gauean, berriz, kalejira piroteknikoarekin amaituko dira jaiak. Horraino, jaiaren muina barnebiltzen duen ekitaldi-sorta.

2024ko jaiak baditu, ordea, hizpide berriak. Izan ere, Andoaingo musika taldeei tarte berezia eskainiko diete, kontzertu handietan. Nafarroa plazako taulagainera igaroko dira, besteak beste, Feeling Good, Natural Project, Black Smoke eta Dukkha taldeak.

Jarraipen zabala Aiurri


Datorren Aiurri astekarian jaiari buruzko eduki ugari argitaratuko da. Eta, ohi bezala, jaien jarraipena egingo du erredakzio-taldeak webgunean eta sareetan.

Musika-eskaintza zabala, jaietan



Jende askorentzat ezagunak dira Mucedadesen kantuak. RTVE

Ekainak 21 | Mucedades Gorabehera handiak izan ditu taldeak. Pentsa, hamar urte atzera bi talde aritu ziren izen berarekin kontzertuak eskaintzen. Taldearen sorburuan aritutako Amaya eta Estibaliz, esaterako, El Consorcio taldeko kideak dira orain.



"Dantza gaua" kantua entzuteko aukera izango da aurtengo jaietan. AIURRI

Ekainak 24 | Dupla Ikuslego gaztearentzat aski ezaguna da taldea. Agurainen 2019an sortutako rap musika taldea da, Gari Uriartek eta Beñat Oribek osaturikoa. "De un pueblo llamado Agurain" disko berriena aurkeztuko dute San Juan jaietan.



Andoaingo jaietan aritutakoak dira nafarrak. Zehazki, 2022an. AIURRI

Ekainak 25 | Puro Relajo Talde nafarra mariatxien musika eskaintzen trebatu dira eta emanaldien agenda dataz beterik dute. San Juan jaietako azken aurreko emanaldietakoa izango da eta, aurreko bisitaldian gertatu bezala, jende andana hurbiltzea espero da.



Urnieta pilotalekuan botua eman zezaketen urnietarrek. AIURRI

Europako hauteskundeak emaitzak Andoainen eta Urnietan

EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNV; hurrenkera hori errepikatu da Andoainen eta Urnietan

EUROPAKO LEGEBILTZARRA

ANDOAIN | 2024/06/09

	Botoa	%
EH Bildu	1.854	34,75
PSE-EE	1.474	27,63
EAJ-PNV	862	16,16
PP	401	7,52
Sumar	202	3,79
Podemos	150	2,81
VOX	126	2,36
Frente Obrero	86	1,61
Se acabo la fiesta	80	1,50
PACMA	22	0,41
Errolda	11.276	
Boto-emaileak	5.353	
Abstentzioa		52,53
Baliogabeak	18	0,34
Zuriak	25	0,47

EUROPAKO LEGEBILTZARRA

URNIETA | 2024/06/09

	Botoa	%
EH Bildu	665	30,82
PSE-EE	534	24,75
EAJ-PNV	430	19,93
PP	191	8,85
Sumar	94	4,36
Podemos	64	2,97
VOX	56	2,59
Se acabo la fiesta	45	2,09
PACMA	15	0,70
Frente Obrero	11	0,51
Errolda	5.412	
Boto-emaileak	2.167	
Abstentzioa		59,96
Baliogabeak	9	0,42
Zuriak	18	0,83



Hautagai-zerrenda multzoa Allurralden, igande goizean. AIURRI

Eskaintza zabala

Hauteskundeotan hautagaitza ugariren artean aukera egin zezaketen botu-emaileek. Luzea zen eskaintza-sorta, eta hautespaper guztiak ez ziren botoa prestatzeko kabinan sartzen. Gauzak horrela, papertxoak kabinaren atzetik hartu behar ziren.



AIURRI

Edukiontzien erreketak berria

Edukiontzien erreketak ez du etenaldirik, Andoainen. Bi astez, jarraian, Goiburuko igoeran eta, astelehen goizaldean, Mimendi kalean. Astelehenera, maiztasun hori nagusitzen ari da. Arrisku handikoa da, sortzen dituen kalte materialak handiak baitira. Hasteko,

edukiontzia. Baina ezin alde batera utzi erreketak hainbatetan izan duen eragina gertu zeuden ibilgailuetan eta eraikinetan. Etxebizitzak gertu dauden kasuetan, gainera, erreketak sorturiko kea arnastea osasunarentzat arriskutsua izan daiteke.

Gobernu taldeak Aiurri astekarirako laguntza bideratu du

Urnietako Udalak eta Erroitzek aurreko astean sinatu zuten Aiurri astekarirako dirulaguntza-hitzarmena. Sinadurarekin, Gobernu taldeak 2023ko abenduan hartu zuen erabakiari eutsi dio. Bideratutako diru-partida, aurreko urteetakoarekin alderatuta, baxuagoa da baina ez hasiera batean iragarri zuten bezain murriztailea. Udalak zabaldu-tako oharren arabera, "Urnietako alkate Jorge Seguradok eta Aiurriko zuzendari Jon Ander Ubedak sinatutako hitzarmena 2024ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean".

2004an sortu zen Beterrri-Buruntzako Aiurri astekaria

Hogei urtez jarraian, Aiurri astekariak Andoaingo eta Urnietako gizarte bizitzaren jarraipena egin du. Astekariaren agerpenak internet joera areagotu zuen. Egun, paperean eta internet sarean, Aiurriren informazio-jarioa egunerokoa da.



AIURRI

Otieta parkea, militarrez beteta

Astelehen eguerdian, Espainiako Lurreko Armadak agerpena egin zuen Otieta parkean. Dozenaka militar, auto eta ibilgailu hurbildu ziren Andoainera, okerrik ezean, Loiolako kuartel nagusitik. Ariketa militarrek egitea ohiko prozedura da. Herritar askoren kexa-iturri bilakatu da, bestalde, tamaina horretako agerpena egitea.

www.aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia



DABID ARGINDAR

Azken agurra Jexux Mari Otaegi "Suso" andoaindarrari, etxekoen eta laguneren eskutik

Ekainaren 2an, ezustean, hilik topatu zuten etxean Jexux Mari Otaegi andoaindarra. Lagunen artean "Suso" ezinenarekin zen ezaguna. Ekainaren 6an, Amasa-Villabonako beilategian erraustu zuten Otaegiren gorpua eta, biharamunean, haren senideek eta lagunek lagunarteko agurra antolatu zuten Bekoplazan. Janez eta edanez, gogoan hartu zuten hilberria zen adiskidea.

Bekoplazan elkartutako gehien-gehienak Andoaingo Gaztetxean ibilitakoak ziren. Kale Nagusiko eraikinean, lehenik, eta Karrika aldean, hurrengo urteetan. 1980ko eta 1990eko hamarkadatan, hard-core musika-taldeen eztanda bizi izan zen udalerrian. Giro hartan sortu ziren Bap! edota Karkaxa musika taldeak. Hain zuzen, gazte garaitan, bigarren talde horretako abeslaria izan zen Jexux Mari Otaegi "Suso" andoaindarra.

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Gipuzkoa mugitu,
Gipuzkoa sentituz.

**Batzen gaituenak,
mugitzen gaitu.**



Ezagutu Kutxa Fundazio berria.
www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat





Dani Gomez eta Beñat Zinkunegi urnietarrak, ibilbide gidatuaren antolatzaileetako bi. AIURRI

Memorian sakontzeko ibilbidea

1988ko ekainean kartzelan hil zen Juankar Alberdi heritarra oroitzeko ekitaldiaz gain, Urnietan iraganean izan diren zenbait gertaera gatazkatsuei begira jartzeko “Memoria Ibilbidea” antolatu dute, ekainaren 15ean

Xabi Lasa URNIETA

Herrera de la Manchako (Ciudad Real) presondegian 1988ko ekainaren 15ean hil zen Juankar Alberdi urnietarra oroitzeko ekitaldia antolatu ohi du herri-tar taldea batek, urtero. Lore eskaintza egiten zaio, eta aldi berean, osasun asistentzia faltagatik hil zela salatzen dute.

Bada, aurtengo oroitzapen egunari, beste zenbait ekitaldi erantsi dizkiote. Besteak beste, bazkaria eta kantu-kalejira Kantazaun taldearekin arratsaldean. Aurrez, goizetik, berriz, Memoria Ibilbidea” izeneko ibilaldi gidatua antolatu dute. Goizeko 11:00etan abiatuko da San Juan plazatik, eta 13:00etan iritsiko

da. Ordu horretan, ohiko oroitzapenezko ekitaldia burutuko dute.

Antolaketa lanetan dabilen taldeko Dani Gomez eta Beñat Zinkunegi kideek adierazi dutenez, bi orduko iraupena izango du “Memoria Ibilbidea”k, eta Urnietan hurbileko memoriaz mintzo diren zenbait tokietatik igarotzeko aukera izango dute parte hartzen dutenek.

Bost herritar hizpide, nagusiki Horretarako, adierazi dute iaz Eneko Bustillok kaleratu zuen *Urnietako Memoriaren Ibilbidea. 1979-1993* argitalpena oinarri hartuko dutela. Batik bat, estatuarne biktimatza hartzen di-

tuzten bost pertsona eta horiekin zuzenki identifikatzen diren tokiak hartuko dituzte erreferentziatza. Honako hauek dira bost pertsona horiek: Batallon Vasco Español talde parapolizialek hil zituen Joxe Ramon Ansa, Jokin Altimasbere eta Joxe Kamio, Guardia Zibilen eskuetan hil zen Gurutze Iantzi, eta, preso zela hil zen Juankar Alberdi. Alberdiren, Iantziren eta Kamioren kasuan, beren jaiotetze edo bizitokietatik igaroko da ibilaldia; Ansari eta Altimasberri dagokionez, berriz, hil zituzten lekuak hartuko dituzte kontuan, hots, Xoxokako bidea (Azkonobieta baseritik gertu) Salesiarrak ikastetxe

aldapa, hurrenez hurren. Biek ere, oroitarriak ipinita dauzkate bertan. Hortaz, hiribarnean zein landa eremuan ibiliko dira parte-hartzaileak.

Geldialdi guztietan azalpenak emango dituzte ibilbidearen antolatzaileek, eta aldi berean, aukera egongo da parte-hartzaileek ere beren bizipenak eta oroitzapenak konta ditzaten.

Bost heriotza horien gainean ez ezik, Urnietan azken hamar kadetan gatazka politikoari lotuta gertatu izan diren beste zenbait gertakizun (atxilotuak, torturatuak, mehatxatuak, “Heriotzaren Triangelua” deitu izan zireneko garai beldurgarriak...) ere hizpide izango dituzte.

Estatuaren biktimatza justizia eske

Eneko Bustillok iaz plazaratutako *Urnietako Memoriaren Ibilbidea. 1979-1993* argitalpena izango du oinarri ibilbideak, esan bezala. Bustillok 2023ko irailean Aiurriri eskaini zion elkarriketan, argitalpenaren edukia azaldu zuen. 1979-1993 epealdi historikoan Urnietan hildako gehiago izan zirela gogoraraztean, Bustillok argi utzi nahi izan zuen zein den argitalpena egiteko ikuspuntua. Hara bere erantzuna:

“Zientzia politikoetan lizentziatua naiz, formazio akademiko hori jaso dut, baina, aldi berean, badaukat posizio ideologikoa, eta hori hitzaurrean definituta egin dut lan. Euskal nazioaren askapenerako borrokaren ikuspuntutik egin dut argitalpena hain zuzen, eta ezin dut ukatu hori. Nire subjektibotasunetik, gaia ahalik eta objektiboan lantzen saiatu naiz, nahiz eta jakitun izan jokabide hori ez dela batzuen gogokoa izango. Zintzo jokatu nahi dut, zein den nire asmoa garbi agertzearekin. Errespetuz aritu naizela iruditzen zait, inor iraindu, gutxietsi edo goraiatzeko asmorik gabe.

ETAk hildakoez badituzte beren omenaldi eta aitormen ofizialak, memorialak, diru-laguntzak... Nik ez ditut horiek gutxietsi edo mindu nahi inolaz ere; bakar-bakarrik, ahaztuen memoria azaleratu nahi dut. Estatuaren parte-hartzearekin edo oniritziarekin hildakoenena, epaiketa, memoria, aitormena edo justizia ukatu zaienena. Azken batean, politika ez da neutroa, eta Estatua ere ez da neutroa; ez



Artxiboko irudia. AIURRI

Juankar Alberdi, gogoan

Juankar Alberdi Martirena urnietarra 1979an atxilotu zuten. Bederatzi urte igaro zituen espetxean, eta haren heriotzaren oinarria osasun asistentzia falta izan zela salatu zuten. Aiurriko hemerrotekara erreparatuta, 1988ko ekainaren 14an, urnietarrak ondoezik zegoela jakinarazi zion presondegiari. Arretarik jaso gabe, ekainaren 15ean hilik agertu zen ziegan. 30 urte zituen.

Ekainak 15, larunbata

11:00 Memoria ibilbidea, San Juan plazatik.
13:00 Lore-eskaintza, San Juan plazan.
14:30 Bazkaria.
18:00 Kantu-kalejira Kantazun taldearekin, San Juan plazatik abiatuta.

da hala izan ez iraganean, eta ezta orain zein etorkizunean ere. Estatuak memoria eta aitormena ukatzen dien horiek sentitzen ditut nik hurbilago. Argitalpen honek hildako horiek gogoan hartzeko eskatzen duenean, ez du bilatzen Urnietako Udalak egin diezaien omenaldia; izan ere, azken 40 urtetan ez bada gogoratu horiekin, politikoki hala erabaki duelako izan da, eta ez du zentzu askorik orain eskakizun hori egitea”.



Astehenean egin zuten hedabideen aurreko agerraldia, eta, asteartean, herritarren aurrean. AIURRI



UDALA

Abiatu da parte-hartze prozesu berria Urnietan

2025eko Udal aurrekontuko 150.000 euroko partida herritarren proposamenak kontuan hartuta bideratuko dira. Oraingoan, gainera, herritarrek proposamenak luzatu eta eurek izango dute aukeratzeko erabakia. Hilaren 30era bitarte dago zabalik prozesua

Erredakzioa URNIETA

“Parte Hartuz” ekimena abiatu berri du Urnietako Udalak, urtero bezala, udal aurrekontuko 150.000 euro herritarren esku uzteko asmoz. Berrikuntza bategin dator aurtengoa, gainera: “Proposamenak egiteaz gain, urnietarrak izango dira gauzatu diren proiektuak zuzenean aukeratzeko dituztenak”.

Horren guztiaren berri emateko, aurkezpena egin zuten asteartean, Lekaion. Ekainaren 30era bitarte izango dute 16 urtetik gorako urnietarrek aukera proposamenak egiteko. Horretarako, informazio-buletina bidaliko da etxe guztietara; bertan, eskaerak idazteko aukera bermatuko da eta, era berean, bozkatetarako orriak ere eskura

izango dituzte. “Aurreko urteetako parte hartze prozesuetan jendearen erantzuna oso ona izan da, eta oraingoan ere jendeak erantzutea” espero du Udalak.

Egapeko eta Magaleko LH6-ko ikasleak ere egitasmoaren partaide bihurtuko dituzte. Horregatik, partida osotik 15.000 erabiliko dira ikasleek egindako proposamenak gauzatzeko.

Eskolako Agenda 30

Urnietako Udaletxera bisitaldia egin dute Eskola Agenda 2030 proiektuan buru-belarri lanean dauden herriko ikasleek. Ekimenaren bueltan ateratako emaitzak udal ordezkariekin partekatu zituzten. Herriko puntu ilunak eta energiaren kontsumoa, horietatik dira ekinaldi honetan gehien aztertu dituzten gaiak.

Egape bidaiak

DAZTEA IKUSKIZUNA

EKAINA 16 SAROBE URNIETA

- 18:30** **bediden emanaldia**
Doan
- 19:30** **guztekin emanaldia**
Sarrerak 3 € Eskuragai 2XN okindogian (San Joan Plaza) eta txarteldegian ordu erdi lehenago

Hiru fase dituen prozesua

Aurreko edizioetan, bi fase ziren. Aurrerantzean, hirugarrena erantsiko da:

- Herritarrek proposamenak aurkeztuko dituzte.
- Udal teknikariek proposamenak aztertu eta hamar aukeratu dituzte.
- Herritarrek hamar proposamen horien artean egokiena zaienaren alde bozkatuko du.

Proposamenaren ezaugarriak

- Udal-eskumenekoak behar dute izan.
- Bideragarriak izan behar dute.
- Interes orokorra hobetsiko da.
- Auzoen arteko oreka bermatuko da.

Parte-hartzaileak

Urnietan erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edonork parte hartzeko aukera izango du.

Epealdia

Azken eguna: Ekainak 30.

Proposamenen aurkezpena

- Postontziak eta kutxak: Herrian hainbat tokitan aurki daitezke.
- Informazio karpa: Ekainak 21, ostirala. 10:00-14:30, Etxeberri plaza; 17:00-20:00, Guriaren kanpoaldean.
- Auzoz auzo: Ekainak 15, larunbata. Bi teknikari auzoz auzo ibiliko dira.

Andoni Urbistondo URNIETA

32 urterekin, etorkizuna airean ikusten du, baina datorrena onartzeko prest, lasai sumatzen zaio; 11 urteko kirol ibilbide oparoak ematen duen patxada da.

Makuluak alboan dituela dabil azken hilabete eta erdian Mikel Iturria (Urnieta, 32 urte), eta aste batzuk geratzen zaizkio, oraindik, laguntzarik gabe ibiltzeko. Denboraldia bukatu da berarentzat, eta udazkenean bizikleta gainean jarri nahi luke berriz; errepidea sentitu berriro, gorputza zigortzeko gai den jakin, 12. urte bat osatzeko gai izango litzatekeen jakiteko. Ahal bada, eta aukera ematen badiote, ondo, baina ezin bada, baita. Hausnarketa sakonak egin dizkio Aiurri astekariari, bere bizitzaz, eta etorkizunaz.

Noiz izan zenuen istripua?

Apirilak 21ean, Giro della Romagna proban.

Nola gertatu zen?

Bost txirrindulari zihozen ihes eginda, eta haien atzetik beste bi. Ondoren tropel nagusia, 20 bat lagun edo, tarte txikira. Ni taldetxo horretan. Helmugako zuzenguneak kilometro pare bat izango zituen, eta aurreko itzulian kontrametatik pasa ginen, ezagutzen genuen nolakoa zen. Postu on bat egiteko borrokan aurretik zihoan norbaitek ertz batean zegoen motorra kolpatu zuen, eta han joan ginen bospasei lagun muturrez aurrera. Oso azkarra izan zen. Espero gabeko muturreko handia izan zen, ez genuelako ulertzen zer egiten zuen motor horrek zegoen tokian. Ez sinestekoa. Erorketa batzuk aurreikusteko modukoak izan litezke, edo sarriago gertatu, esprintetan elkarri kolpetxoren bat hartuta, edo hesi baten aurka jotzen baduzu, adibidez. Esprint batean zure aurrean geldirik motor bat topatzea ez da normala. Airetik atera ginen hegan.

Eta abiadura handian, noski.

Bai, 50-55 kilometroko orduko abiaduran bai, gutxi gorabehera.

Eta zer egiten zuen, bada, motor hark zegoen tokian?

RAI Italiako Telebistako kamera zeraman motorra zen. Gu eta aurreko zazpien artean zihoan, eta antza denez ez zuen lasterketako ibilgailuek hartu behar duten desbideratzea hartu. Ibilgailuek debekatua dute helmuga zeharkatu, oso arriskutsua

“Ez nuke nahi horrela bukatu, baina gerta liteke”

MIKEL ITURRIA EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO TXIRRINDULARIA

Bi orno eta tibia eta peronea hautsi zituen Italian apirila bukaeran, erorketa batean, eta osatze prozesua ondo doa; ondo, baina mantso, eta aurtengo lehiaketak bukatu zaizkio



Makuluak alboan dituela dabil azken hilabete eta erdian Mikel Iturria urnietarra. **AJURRI**

izan daitekeelako, eta UCI Nazioarteko Txirrindularitza Elkargoak isun ekonomiko handia jar diezaiokeelako. Helmuga ez pasatzea eta ertz batean geratzea erabaki zuen. Probako laburpena ikusi dut telebistan, eta tropel nagusiaren aurretik joaten den poliziaren motorra ezker aldean geratuta zegoen. Talde buruan doan txirrindulariak motorraren arrastoa jarraitzeko joera izaten du, normalean. Esprint batean aurreko ziklista bakarrik ikusten duzu, beste ezer ez. Bat-batean sekulako danbatekoa hartu genuen.

A ze triskantza.

Bai. Aurretik zihoan kideak hanka hiru tokitatik hautsi zuen, okerren bera, eta ondoren, neu. **Nola izan ziren kolpearen ondorengo lehen minutu horiek?**

Beno, ez nuen min handirik sentitu. Lepoko minarekin hasi nintzen, baina pentsatu nuen artatu eta etxera bidaliko nindutela azkar. Hankan ere mina sentitzen nuen, baina zauria eta kolpea izango zirela pentsatu nuen. Gero erietxera eraman ninduten, eta sekulako aberia. Bi orno zerbikal hautsita, C-2

"AMESTUTAKO ERRETIRO GUTXI DAUDE GUREAN, TXIRRINDULARITZAN"

MIKEL ITURRIA

eta C-7a, eta tibia eta peronea ere hautsita. Tibia orkatilaren parean, eta perone burua goialdean.

Eta, nola hartu zenuen parte?

Aurreneko gauza Sierra Nevada hilabeterako gordeta nuen apartamentuko erreserba ezeztatzea izan zen (Granada, Espainia). Romagna eta gero atsedena neukan aurreikusia, gero prestakuntza altueran, eta Portugalgo Itzulia eta Espainiako Vuelta, denboraldiko bigarren bloke moduan. Azkar jabetu nintzen osatzea ez zela laburra izango. Lehen egunak ez ziren samurrak izan, baina behin Iruñeko erietxera iritsita ondo. Ezin hobe artatu eta zaindu ninduten bertan.

Noiz jabetu zinen denboraldia bukatua zegoela zuretzat?

Orno hautsia entzuten duzunean badakizu lesioa serioa dela. Tibia eta perone gehitzen badizkiozu, ez zara aditua izan behar osatze prozesua luze joango dela jakiteko. Bizkarreko lesio horiek beti dira konplexuak, ez da lepaizta haustura bat. Medikuek esan zidaten, bere txarrean zortea izan nuela, hautsitako bi ornoak ez direlako arriskutsuak. Agian bost urte atzera saiatuko nintzen osatze prozesua azkartzen, baina orain, 32 urterekin, eta daukadan eskarmentuarekin, osatze prozesua lasai hartzea komeni. Bizikleta eta gero beste bizitza bat dago. Eskuin hankan urte batzuk atzera izterrezurra ere hautsi nuen, eta poliki-poliki joatea, onena.

Zazpigarren astea, jada, osatze prozesua hasi zenuenetik. Zer moduz etxean?

Aspergarri samarra. Ondo egin dut lo, ia egunero, siestak ere bai, eta alde horretatik ondo. Baina luzea egin zait, ordu asko pentsatzeko, bueltak emateko. Ezin izan dut ezer egin, kalera paseo txikiren bat, lagunekin afaltzera egunen batean... Egun batzuk azkar pasa dira, beste batzuk luzeagoak egin zaizkit. Giroa ikusi ahal izan dut lasai, eta gustura.

Ze pentsamendu izan dituzu?

Adin bat daukagula dagoeneko (32 urte). Iaz, lepaiztaia hautsi nuenean, hasi nintzen egoerari bueltak ematen. Txirrindulari profesional izaten jarraitzeak merezi ote duen, jarraitu ahal izango dudan edo ez, momentuz kontraturik ez daukadalako 2025erako. Ez dut nahi profesio-



Mikel Iturria, 2022ko Ordiziako Klasikoan. ITURRIA

nal munduan jarraitu nahi, jarraitze hutsagatik, anbizio edo helbururen bat lortzeagatik baizik. Korritzeagatik korritu, hori ez dut nahi. Osasun mailan ere beti daukazu zalantza osatzea erabatekoa izango den, dena bere tokian geratuko den, baina konfiantza osoa daukat medikuekin. Hurrengo pausoak zein izango diren jakiteko gogoz nago. **Eta gaur-gaurkoz, badakizu jarraitu nahi duzun, ez?**

Erabakia berriro bizikleta gainean jartzen naizenean hartuko dut. Sentsazio hori sentitu behar dut berriro, erabaki bat edo beste hartu aurretik. Etxean zaudenean dena negatibo ikusten duzu, urruti. Txarrena pasa dut, errehabilitazioan nabil, orkatilan ere mugikortasuna irabazi dut azken egunetan, oraindik plastikozko botarekin banabil ere, eta egunetik egunera hobeto nago. Kirolariok lesioetatik azkarrago osatzen garela diote, fisikoki ondo gaudelako, eskarmentua dugulako, eta ea ba, bizikleta gainean ibiltzeko aukera dudana hilabete batzuk barru. Profesionaletan 11 urteko bidea egin dut, eta ez nuke bukaera hau izan nahi. Horrela izan behar badu, horrela izango da, baina ez nuke nahi hala izatea.

Horrela bukatzeko arriskuak beldurtzen zaitu, Mikel?

Esan dudana, ez nuke nahi hala izatea, baina datorrena onartuko dut. Ez dit beldurrik edo amorrurik ematen horrela bukatzeak. Azken finean, nork dauka amestutako erretiroa? Kirolean inork gutxik. Pena emango lidake, baina ez litzateke drama handirik izango.

Lagundu zaitu sentsazio horretan 11 urte horietan sarri alanbrean ibili izanak? Izan erorketekin, kontratu berritzeekin...

Kirolean badakizu zure ibilbidea bukatu egingo dela. Lehenago izango da, edo beranduago, baina bukatu egingo da. Jende asko enpresa batean hasten da, eta enpresa horretan osatu du lan bizitza osoa. Edo tabernari moduan. Kirolariak badaki bere jardunak data muga bat daukala. Nire kasuan kolokan egon izan naiz sarri, lehen urteetan nire bidea bukatu egingo zela sinetsita nengoen. Urteak pasa dira horrela, eta 11 egin ditut. Errealitatea gordina da. Iritsiko da aurtengo negua, urtarrila, eta akaso ez naiz ariko denboraldia prestatzen. Une txarrak izango dira ziur, baina bizitzan ugari izaten dira une txarrak. **Zurearen moduko istripuak gertatu izan direnean, taldeek kontratuak automatikoki berritzen dituzte, pasatako zorigaiztoa gogoan. Zuk ez duzu proposamenik jaso, momentuz.**

Ez dut hitz egin kontuaz, eta erabakia dagokionak hartu beharko du. 24 urte izango banitu urduri eta kezkatuta egongo nintzen. Orain ez. Izterrezurra hautsi nuenean Jon Odriozola kirol zuzendariak berehala esan zidan lasai egoteko, hurrengo urtean kontratua edukiko nuela Murias-en. Kontratu proposamena iristen bada ere, nik neuk esan beharko dut profesional izateko gai naizen edo ez.

Kirolari osteko prozesuaz hausnartu duzu, prestatu duzu bizikleta ondorengo aroa, eta lasai sumatzen zaizu zentzu horretan.

Amak taberna dauka Andoainen, Irrintzi, eta Jon anaia bertan ariko da lanean. Neu ere tabernari izatea ez dut baztertzeko, baina beste aukera batzuk ere baditut buruan. Ikasketaren bat egiteko garaia inoiz ez da berandu, eta txirringularitzan murgilduta jarraitzea gustatuko litzaidake, kirol zuzendari akaso. Ez daukat garbi, baina asmo batzuk bai. Ikusiko dugu.


Aurrena, dena den, ondo osatu eta bizikletan jarraitzeko gai izango zaren jakitea da, ezta?

Bai, dudarik ez. Fisikoki ongi aurkitzen banaiz gustatuko litzaidake errepidean agurtzea. Euskal Herriko Itzulia edo Donostiako Klasika korrituz. Baina aurrena, ondo errekuatu. Hala ez bada, kitto esan beharko dut. **Bakardadean zauden ordu horietan egin al duzu zure kirol ibilbidearen halako erreparorik?**

Egiten da atzera begirakoa, tar-teka. Gauza onak egon dira, txarrak... Izterrezurra hautsi nuenean bizikleta gainean jarri eta otsaila-martxoan bi lasterketa bukatzeko gai nintzela ikusita sekulako indar bultzada sentitu nuen. Orduz geroztik urte asko egin ditut profesionaletan, Vueltan etapa bat irabazi, postu on dezente... Norberak bere burua loratzen ez badu, nork egingo du? Badakit egingakoa lortzeko zenbat sakrifizio egin dudana, eta harro nago.

Txirringulari profesionalaren bizitza alboratzeak hainbat onura dakartza: mendian ibili, lagunekin aisia, korrika egin, elikadura hainbeste zaindu behar ez izatea... Tentaziorik izaten al duzu aro berri horrekin?

Sakrifizioak baino, guk errenuntzia edo uko egiteak egiten ditugula esan zidan kide batek, orain ez aspaldi. Alegia, egiten dudana ez dudala sakrifizio moduan ikusten, gustura egiten dudalako. Baina egia da gauza askori egiten diozula uko: etxera goizago joan hurrengo egunean entrenamendua daukazulako, edo jubeniletan ikasturte bukarako bidaiari uko egin, Paris-Roubaix korritu nahi nuelako Espainiako selekzioarekin. Behintzat, lasterketan parte hartzea lortu nuen. Gauza asko utzi ditut bide bazterrean, baina ez daukat damurik. Beste gauza askotaz damutzen naiz, baina goizero bizikleta hartu eta entrenatzeaz ez. Ate hau ixten bada, beste bat irekiko da, eta saiatu behar da horretaz disfrutatzen.



Vingegaard, iazko Itzulian, Hika txakolindegiko malda pikoan. AIURRI

“Vingegaard onenak bakarrik egin diezaioke aurre Pogacarri, Tourrean”

11 urtetan bilakaera handia izan du txirringularitzak. Aldaketa nabarmenena gazteen maila izan omen da Iturriaren ahotan. “Maila ikaragarri handitu da azken urteetan, batez ere gazte jendearen eskutik. Murias taldearekin bi urte egin genituen Pro-Continental mailan, eta etapa bana irabazi genuen Vueltan, bi urtetan”. Gaur egun hori oso zaila omen: “Lehiaketa guztietan presioa itzela da, eta gazteek irabazteko grina ikaragarria dute profesionaletan hasten diren unetik, 20-21 urterekin. Maila gehiago dago, presio gehiago, erorketa gehiago, eta egoera horrek ez dauka bueltarik”, dio zintzo.

Esan dugu, urnietarrak Giroa telebistan ikusi zuela. Pogacarren erakustaldiak ez du ezustean harrapatu Mikel: “Historian antzeko gauzak gertatu izan dira. Gaurkoak, berrienak beti ematen du ez duela parekorik izan, baina izan du. Inor ez da harritu gertatu denarekin. Dena lehiatzen da, eta UAE taldeak ez du ezer oparitu nahi. Kataluniako Voltan lehiatu nintzen eurekin, eta papurrak ere ez dituzte utzi nahi. Batzuei gustatuko zaie, besteei ez, baina hauxe da, dagoena”.

Bi astetan hasiko den Tourrari begira pronostikoa egiteko eskatu diogu, galdera zuzen batekin: favorito al da Pogacar? Honatx, erantzuna: “Vingegaarden baitan dago. Berak eta bere taldeak bakarrik dakite nola dagoen. Ez badago iazko mailan, jai dauka Pogacarrekin Tourrean. Ikusitakoak ikusita, gainera, esango nuke esloveniarrari Giroa korritzea ondo etorri zaiola, egun askotan oso lasai ibili delako. Nekatuta egongo da, baina ziur nago Tour hasierara oso ondo iritsiko dela, gogorra delako. Gaixotasunak eta erorketak saihesten baditu, lan bikaina egingo du”.



Urnietako
udala



Agustin Leitza elkartean, bertako xake taldeko zenbait kide, ekainaren 8an. Zutik, ezkerretik hasita: Daniel Castaño, Juan Migel Imaz, Aritz Rabadan, Josu Zubillaga, Jesus Mari Espin, Urko Vallejo eta Agustin Mazkianan. Eserita: Tinin Cueva, Antonio Arcia, Luuk Vosters, Peio Etxebeste, Nacho Jaumandreu, Javier Corral, Iker Fernandez eta Eneko Garmendia. AIURRI

Agustin Leitza Xake Taldea sortu zutela 50 urte betetzear dira

Indartsu dabil xakea Andoainen Agustin Leitza elkartearen eskutik. Horren adibide da bertako hiru talde lehiari aritu izana aurtengo denboraldian, eta, halaber, Luis Ortegak Gipuzkoako Xake Azkarreko txapela irabazi berri izana

Xabier Lasa ANDOAIN

Agustin Leitza elkarte gastronomikoa 1965ean sortu zuten hainbat andoaindarrek, eta 1974an, Xake taldea bultzatu zuten. Hortaz, 50. urteurrena betetzen ari da talde hori. Alde

horretatik, modu arrakastatsuan ari dira ospatzen mende Erdiko ibilbidea Agustin Leitza Xake Taldea osatzen duten jokalarizuztiek. Izan ere, aspaldiko partez, hiru talde aritu dira lehiatzen bukatu berri den aurtengo 2023-

2024 denboraldian. Gipuzkoan lau lehiaketa ofizial jokatzen dira denboraldian: gorengoa, eta lehen, bigarren eta hirugarren mailak. Bada, Agustin Leitza talde batek gorengoan hartu du parte, eta beste biek, hiruga-

rrengo mailan; azken horietako batek, bigarrenora igotzeko txartela lortu du, denboraldi bikaina egin ostean.

Hona nortzuk jokatu duten hiru talde horietan. Gorengoan: Luis Ortega, Javier Corral, Iosu Agirre, Aritz Rabadan, Tinin Cueva eta Nacho Jaumandreu. Hirugarrengo mailan, berriz, lehen taldean, Agustin Mazkianan, Jose Luis Godoy, Alfredo Guerrero, Jesus Maria Espin, Juan Migel Imaz, Illart Alkorta, Patxi Suescun, David Losada eta Danoi Castaño. Eta hirugarren mailako bigarren taldean, Claudio Mendikute, Roberto Paniagua, Urko Vallejo, Ruben Sebastian Paoli, Iosu Zubillaga Peio Etxebeste, Lazaro Abreu, Pasquale Driesman eta Luuk Vosters.

Gipuzkoako lehiaketetan Agustin Leitza taldearen presentzia sendo horri, Luis Ortegak, berriki, herrialdeko Xake Azkarreko txapela jantzi izana gehitu behar zaio.

Bada, denboraldi bikainari amaiera ezin alaitsuagoa emateko, afari batean bildu ziren elkartean, ekainaren 8an. Jakina, afaldu aurretik, bata besteen kontra zenbait jokaldi egiteko beta hartu zuten guztiek, sukal-

de lanak bere gain hartu zituzten bi taldekideek ezik.

Adiskidetasuna eta aurkariari irabazteko grina ederki uzartzen dakizkitela erakutsi zuten beste behin, gau hartan.

Luis Ortega, Gipuzkoako txapeldun

Agustin Leitza Xake Taldeak badu Gipuzkoako txapeldun bat aurtengo denboraldian, esan bezala. Luis Ortega da hori, eta 2024ko apirilaren 28an Azpeitian jokatu zen Gipuzkoako Xake Azkarrean jantzi izan txapela. “Egun osoko txapelketa izan zen, eta zazpi jokaldi irabazi eta bi berdinketa egin nituen”. Urtetan pilatu izan dituen jakintza eta eskarmentuaz gain, unean uneko estrategiak balio izan ziola txapela eskuratzeko, aitortzen du Ortegak.

Izan ere, txiki-txikitatik hasi zen xakean jokatzen eta lehiaketetan parte-hartzen, eta ez da lehenbiziko aldia goi mailako tituluren bat eskuratzeko duela. “Beste bi alditan izan naiz Gipuzkoako txapeldun, urtetan atzera Lasarte-Oriako taldeko kide nintzela. Lehenbizikoa, jubenil mailan izan zen, eta bigarrena, orain 35 bat urte Ordizian”.

Ezin uka xakea gutxiengo baten kirola denik, eta horrela, Gipuzkoako titulua irabazteak, soilik, xakearen munduan ospe txikia lortzeko eta Euskadi mailan jokatu ahal izateko aukera ematen duela. Hain zuzen, Bergaran ekainaren 2an jokatu zen Euskadikoan aritu zen, eta zortzigarren postua eskuratu zuen.

Zaletasuna gorantz

Luis Ortegak Agustin Mazkianan dauka aldamenean, xakearekin lotutako kontuez mintzatzeko. Agustin Leitzako gaztetxoez arduratzen da Mazkianan; izan ere, helduekin ez ezik, gaztetxoekin ere egiten baitu lanketa xake aldeak.

Biek izan dute aipagai xakearekiko zaletasunak azken hamarkadetan bizi izan dituen bolada onak eta ez hain onak. Hala dio Mazkiananek. “Kasparovek eta Karpovrek 80ko hamarkadan jokatu izan zituzten jokaldiak oso mediatikoak izan ziren nazioartean, eta izugarritzko afizioa sustatu zuten. Pittin bat gainbehera etorri zen ondorengo urtetan, nolana ere. Azken urtetan, ordea, gora etorri da berriro modu harrigarrian, eta, batik batik, pandemiari esker izan dela esango genuke”.

Partidak jokatzeko arauak azkartasuna balioetsi izana eta aurrerapen teknologikoez jokatzeko aukerak online eskura jarri izana. Bi arrazoi horiek xakearen loraldiaren zergatia azaltzen dutela gehitu du Ortegak. Hain zuzen, Chess.com eta Lichees.org zerbitzariak aipatu dituzte, egunean edozein ordutan orri horietan sartu eta munduko edonorekin jokaldian murgiltzeko aukera ematen baituzte.

Gaztetxoengan sustatzen

Gaztetxo xake zaleek ostiral arratsaldeetan daukate hitzordua elkartean, Mazkiananek adierazi duenez: “Ahoz ahoko kanpainak funtzionatzen du gurean, eta ume mordoxka bertaratzen da. Horiekin helburua ez da ez dakit zein mailetara irits daitezen, baizik eta xakean jokatze gogoa piztea eta ikus dezaten aktibitate egokia dela ondo pasatzeko”. Ez dagoela zertan federatu beharrik edo kuota ordaindu beharrik zehaztu du Mazkiananek. “Ateak irekita dauzkate gaztetxoek, ostiralero. Alde horretatik, herriko gaztetxoak animatuko nituzke, etorri daitezten, eta proba dezaten.



Agustin Mazkianan, Luis Ortega eta Josu Zubillaga. AIURRI



Aidin desberdinetako jokalariek biltzen ditu Agustin Leitzako Xake taldeak. AIURRI



Ekainaren 8ko afarira bildu aurretik, jokalariek zenbait jokaldi egin zituzten. AIURRI

Berdin dio zenbat dakiten jokatzen, prest gaude gutxitik erakusteko ere”.

Gaztetxoengan xakerako zaletasuna piztea ez dela lan batere erraza aitortzen du Mazkiananek. “Eskolaz kanpoko kirol eta kultur jardueraz aparte, denborapasarako makina bat joko daukate gazteek eskura egun. Ez dago samurra errealitate horri aurre egitea”.

Urtean bi txandetan ateratzen dituzte kalera xakeko piezak, taulak, erlojuak eta mahaia, 16 urtez azpikoen txapelketa jokatzeko. Santa Krutz eta San Juan jaietan egiten dira bi hitzordu horiek, hain zuzen, eta arrakastuak suertatzen dira, gaztetxo mordoa erakartzen baitute. Santa Krutzetako txapelketa, 2021eko maiatzean hil zen Eneko Martiarenaren oroimenezkoa izaten da. Martiarenak, jokalaria bikaina izateaz gain, Mazkiananekin batera jardun ohi zuen gaztetxoekin.

Ate joka datozkigun San Juanetan, hilaren 22an, larunbatarekin, Goikoplazan jokatuko da, 10:30etik 13:00etara.

Gizonezkoen kirola

Xakea gizonezkoen kirola izan da nagusiki betidanik, eta horrela izaten segitzen du egun ere, zoritxarrez. Santa Krutz eta San Juan jaietako gaztetxoekin bi txapelketa horietan nahiko nabarmen geratzen den errealitatea da, eta zer esanik ez, helduen mailetan.

Orokorra da errealitate hori maila guztietan, eta nazioarteko lehiaketetan parte-hartzea apenas iristen da hamarretik bat izatera. Gaia aztertu dutenek arrazoi ugari aipatu izan dituzte, eta genetika eta hezkuntza batik batik.

Mazkiananek, genetikari eusten dio, “oso gai eztabaidagarria da eta ez dakit era zientifiko batean hitz egin daitekeen. Nolanahi ere, genetikaren tesiak baduela oinarririk esango nuke nik. Labur esanda, behin adin batera helduta, 12-14 urteak betez gero, gizonengan lehiakortasuna gailentzen dela, eta emakumeei, ordea, ezaugarri horri eta norgehiagoka aritzeari muzin egin eta jendartekotasunak erakartzen diela gehiago, giza harremanen arloa alegia”.

Mazkiananek gaineratu du Agustin Leitzako Xake Taldeko gaztetxoekin, ahalegintzen direla genero berdinketa sustatzen.

"Errespetua oinarri duen kirola da boxeoa"

NURA ARIZTIMUÑO BOXEOLARIA

Euskal Herriko txapelketa da andoaindarra 48 kilogramotan, eta boxeoa lehiatzen jarraitu nahi du. Etorkizun luzea du aurretik

Mikel Arberas ANDOAIN

Nura Ariztimuño eskubaloi jokalaria zen gazteagotan, baina unibertsitatera joan zenean kirola alde batera utzi zuen. Handik gutxira, berriro ere kirolean hasteko gomendioa eman zioten eta boxeoa probatzea erabaki zuen, gaur arte. Egun, gogor entrenatzen du Donostiako Anoeta Boxeo Eskolan.

Azaldu apur bat nolako entrenamenduak egiten dituzun.

Txapelketetan aritzen garenok egunero joan gaitezke entrenatzera, egokien zaigun orduan, izan ere, lana egiten dugunez ordutegira moldatu behar izaten ditugu entrenamenduak.

Entrenamenduei dagokionez, bi zatitan bereiztuko nuke: batetik, lanketa fisikoa, eta, bestetik, alde teknikoa; izan ere, kolpeak teknikoki lantzea ezinbestekoa da boxeoa. Hamabost pertsonako entrenatzaile bat eduki ohi dugu eta kolpe-konbinazioak nola egin azaltzen digu; orduan, bikoteka jartzen gara eta kolpe multzo hori errepikatzen saiatzen gara eta, bitartean, entrenatzaileak zer hobetu esaten digu. Horrez gain, beste kirolean bezala, estiramenduak eta beroketa ariketak egitea ezinbestekoa da.

Larunbatean, Hernaniko kiroldegian lehiatuko zara. Zein aurreikuspen egiten duzu?

Ez dut aurkaria ezagutzen eta, ni bezala, borroka gutxitan parte hartu duela uste dut. Hortaz, ezin dut aurretiaz ezer esan, informazio asko falta zaidalako. Era berean, urduritasun apur



Nura Ariztimuño, borrokarako arroparekin. AIURRI

bat sorrarazten dit, ez baitakit nola mugitzen den ring-ean, zein ahulgune edo indargune dituen eta zer esperoko dudatan lehian. **Maiz aipatu da boxeoa bezalako kirolak zakarrak eta bortitzak direla. Bestalde, kiroltasun eta erres-**

petu handia omen dago boxeolarien artean...

Boxeoa eduki ditudan esperientziak errespetuan oinarritutakoak izan dira. Errespetua oinarri duen kirola da. Azken finean, aurkaria eta biok, kirol bat prak-

tikatzen ari garelako kolpatzen dugu elkar, ez haserreagatik edota gure artean arazorik dagoelako. Hori ulertzea ezinbestekoa da. Are gehiago, emakumezko boxeolari gutxiago gaudenez, elkarren artean babesten, animatzen eta harreman ona edukitzen saiatzen gara. Nire kasuan, aurkariak errespetuz tratatzen saiatzen naiz, bai borrokaldia baino lehen, pisaketetan esaterako, eta bai ondoren. Adibide bat jartzearen, lehiaren ostean elkarri eskua eman, bersarkatu edota laguntasun keinuak elkartrukatzeko ditugu.

Pisaketa aipatu duzu. Zertan datza? Borrokaldia baino bi ordu lehenago izan ohi da. Zure izena esaten dutenean, pisatu eta zerbateko egokia eman behar duzu. Zer pasatzen da pisuz pasatzen bazara?

Oso zorrotzak dira. Dena den, denbora tarte bat ematen dizute pisuz jaisteko, eta, horretarako, ariketa fisikoa egin dezakezu; esaterako, lasterka edota soka-saltoa, beste batzuen artean. **Borrokari dagokionez, lehia betean murgilduta askotariko kolpeak jasotzen dituzue. Ematen dituzuen bezala, jasotzen ere ikasi egin behar al da?**

Baietz esango nuke. Entrenamendu eta borrokaldi gehiago egin ahala, gorputza kolpeetara moldatzen da. Hortaz, irakurleei harrigarria egingo zaien arren, momentuan ez duzu kolpea guttiz sentitzen; zera esan nahi dut, kaskoarekin eta bukalarekin babestuta goaz, eskularruekin barrubiguna dute eta uneen uneko adrenalinak borrokarekin jarraitzen laguntzen du.

Geroz eta gehiago dira boxeoa praktikatzeko hasten direnak. Normalizatzeko prozesuan al dago?

Inguruan asko hasi dira boxeoa. Gainera, geroz eta gehiago dira boxeoa praktikatzera animatzen diren emakumeak, eta horrek asko poztzen nau.

Amaitzeko, aurrera begira helbururik ba al duzu boxeoa?

Aurtengo nire helburua Euskal Herriko txapelketa irabaztea zen, 48 kg-tan, eta lortu dut. Urte osoan aritu naiz prestaketa lanetan eta asko sufritu dut 48ko pisura iristeko. Beraz, datorren urteari begira, beste maila batean lehiatzea edo 48 kilogramotan jarraitzea pentsatu behar dut. Horiek horrela, hurrengo urteko garapenaren arabera erabakiko dut gauza bat edo beste.

Sagardoaren Txapelketaren finalaurreak, iristear


Galarretan, lehenengo fasea amaitzeko jardunaldi bakarra falta da, eta, dagoeneko, gauzak asko argitu dira. Hiru bikote jada sailkatu dira, finalaurrekoetara: Urriza-Martirena (Aburuza), Ezkurra II-Azpiroz (Alorrene) eta Ansa II-Zubiri (Bereziartua). Jabalerak Loitegi ordezkatu du eta Barrenetxearekin batera 2-0 (15-8 eta 15-9) garaitu zituzten Ezkurra II.a eta Azpiroz.

Ostegun honetan, txapelketaren 5. jardunaldian, Jabalerak jarraituko du Loitegiren ordezkari gisa. 17:30ean hasiko den jardunaldian, Aldabe eta Juanenaren aurka ariko dira.

SAILKAPENA

SAGARDOAREN TXAPELKETA

	P	J
1 Urriza-Martirena (Aburuza)	13	4
2 Ezkurra II-Azpiroz (Alorrene)	11	4
3 Ansa II-Zubiri (Bereziartua)	10	4
4 Loitegi-Barrenetxea (Oialume Zar)	8	4
5 Segurola-Larrañaga (Petrítegi)	6	4
6 Aldabe-Juanenea (Gurutseta)	0	4



Urrietako kiroldegia. AIURRI

Muskulazio gela aste osoan itxita izan da Urrietako Kiroldegian

Kiroldegiko muskulazio, spinning eta jardura gunean instalakuntzak eraberritzeari ekin diote eta, horren ondorioz, zerbitzu hori eten egin behar izan duite goizeko 08:30etik arratsaldeko 15:00ak arte. Gainerako eremuak berriz, normaltasunez erabiltzen jarraitzeko aukera izan da. Astea igarota, "asteburuan egun osoan erabili ahalko da muskulazio gela" iragarri du Udalak.



Andoain eta Errenteria taldeko kideak, sari-banaketa ekitaldian. AIURRI

Gipuzkoako Herriartekoan, palan, Andoain txapeldunorde

Andoaindarrek final ona jokatu zuten, baina tanteoan oreretarrak nagusitu ziren

Erredakzioa ANDOAIN

Tanteoan erabaki zen Gipuzkoako Herriarteko finala, aurreko asteburuan. Partida bana irabazi zuen herri bakoitzak, baina tantu guztien baturan, Errenteriak 72 egin zituen eta Andoainek, aldiz, 66.

Pala: Errenteria 32-35 Andoain

Errenteria: Ibon Eskisabel-Mitxelena-Ruben Pichel Jimenez. Andoain: Xabier Alkorta Ato-rasagasti-Iñaki Lopez de Munain Oñederra.

Pala motza: Errenteria 40-31 Andoain

Errenteria: Yorel Martinez Garcia-Abel Pichel Jimenez. Andoain: Ibon Altuna Zabala-Ibai Iradi Berasategi.

Emozioz beterikoa izan zen Oiarzungo Madalensoron jokatutako finala. Larruzko paletan, Andoainek garaipen bikaina lortu zuen. Bigarren partidari, andoaindarrek 38 puntu egin behar zituzten irabazteko, baina ez ziren horraino iritsi. Eskura izan zezaketela zirudien, lehen 25 puntuetan andoaindarrek markagailuan aurretik jarri zirelako. Bukaera aldera, ordea, Andoaingo bi ordezkariek lesio-natuta jokatzen aritu ziren. Gutxiatik izan bazen ere, aurtengoan finalak ihes egin die. 2024ko Herriartekoan, beraz, Andoain txapeldun-orde da.

Kirol-jarduera horretan Andoain erreferentziatzeko taldea da, urteak joan eta urteak etorri txapela irabazteko faboritoetakoak baita.



Uria, sakean. Atzean, adi, Salbador. AIURRI

Herriartekoan, eskuz, Zaldibiak Andoain kanporatu zuen

Hirugarren eta azken partidara iritsi arte, finalera sailkatzeko aukera izan zuen Andoaingo taldeak


Erredakzioa ANDOAIN

Final-laurdenetan lan txukuna egin du Andoain herriak, baina ezin izan du koska bat gorago igo. Zaldibia nagusitu da, joan-etorrian. Aurtengo Herriartekoan, ordea, zapore gozoa utzi die herriko pilotariei eta zaletuei. Datozen urteetan emozio handiak eskaintzen jarraituko dute gure pilotariei, ziurra da hori.

Ostiral iluntzean, Arrate pilotalekuan jokatu zen itzuliko jardunaldian, kadete eta jubenil mailako partidatan nagusitu zen Andoain. Azken norgehiagokan, ordea, helduek ezin izan zuten jokoa bideratu. Hirugarren eta azken partidari, kantxan, Zaldibiko Elizegi nagusitu zen. Eta, horri esker, Zaldibia da finalaurrekora sailkatu den herria.

Lehen norgehiagokan, Aimar Berozek eta Mikel Gaztañagak partida ona jokatu zuten (22-17), zaldibiarren aurka maila bikaina erakutsiz. Beroz, ohi bezala, seguru aritu zen eta Gaztañaga bizi-bizi aritu zen aurrealdean. Jubenil mailan, Beñat Salbadorrek eta Eneko Uriak sekulako partida jokatu zuten, partida osoan jokoa eta markagailua aldekoa izan izanik. Salbadorren pilotakadak maila gorenekoak izan ziren eta Uria sakean bikain aritu zen. Kanporaketa azken partidari erabaki zen. Andoaindarrek 12 tanto egin behar zituzten finalerdia sailkatzeko, aurrean zuten Elizegi eta berak irauli zuten markagailua (6-22).


Gaualdi bikaina bizi izan zuten Arratera hurbildu zirenek.




Urruzola-Ramirez. AIURRI

Finalaurrekoak Kontzejupean

Ramirez-Urruzola, Xabat-Eskudero, Olasagasti-Usandizaga eta Gaztañaga II-Beroz II bikoteak iritsi dira aurtengo txapelketaren finalaurrekoetara. Datorren astean jokatuko dira, eta jaietan 3-4. postua eta final handia jokatuko dira. Hitzordua laster zehaztuko dute. Hamazortzi bikoterekin abiatu zen txapelketa, apirilean.



Beroz II-Gaztañaga II. AIURRI



Olasagasti-Usandizaga. AIURRI



Eskudero-Xabat. AIURRI

Futbolaren Gala

Gipuzkoako Futbol Sarietan hainbat sari banatu zituzten, amaitu den 2023/2024 denboraldian izandako ibilbide, lan edo jardueragatik garrantzi berezia izan duten pertsona, klub eta erakundeak nabarmenduz. SD Euskaldunako emakumezko Ohorezko Kadeteak kiroltasun saria jaso zuen, Oñatin antolatu zuten galan.



GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Espainiako Kopan lidertzan da Aranguren

Lizarran egin zen Espainiako kopako lasterketan, Irati Aranguren 4. postuan sailkatu zen. Aranguren liderra da, kopan.

Azkartasun sega txapelketa

Igandean izango da Zizurkilgo udaltxearen alboko belazean, Bertan izango da Gabirondo.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 14

ANDOAIN Ate-irekiera

Andoaingo AEK-k eta Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak ate irekien jardunaldia antolatuta dute. Informazioa: 943 59 17 04 / 688 74 66 43. Emaila: andoain@aek.eus. **Bi aukera: 10:00 / 17:00. AEK.**

ANDOAIN Erakusketa

Maddi Zumalabe Irastorza artistaren 'Lau eta Sakona' lana ikusgai. **Uztailaren 5a bitarte. Bastero, erakusketa gela.**

ANDOAIN Entseguak

Axeri-Dantza prestatzeko entseguak, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. **19:00-20:00, Ondarreta. Ekainak 14, 17, 20.**

ANDOAIN Merkataritza

Udalak sustatu dituen bonoak erosteko kanpaina martxan dago. **Azken eguna: Ekainak 30.**

ANDOAIN Deialdia

Marxan da 'Euskaraz barra-barra' marka herriko merkataritza eta ostalaritza zabaltzen jarraitzeko kanpaina. Establezimenduren batek marka eskuratu edo informazio gehiago nahiko balu, Euskara Zerbitzuarekin jarri behar du harremanetan: 943 300 831 edo euskarazerbitzua@andoain.eus. **Kanpaina martxan da.**

LARUNBATA 15

ANDOAIN Rock Jaialdia

Eguerdian, Amorante, Indabe eta Munlet. Jaialdi nagusia: Goat girl, The bug club, Howlin' Jaws, Tramhaus, Pinpilipussies, lthaka. **18:00, Nafarroa plaza.**

ASTELEHENA 17

ANDOAIN Gazte erronka

DBH 3-4ko 300 gaztek hartuko du parte Leitzaran Bisitarien Etxean. **09:30, Bekoplaza.**

ANDOAIN Izen-ematea

2024-25 ikasturteko gorputz eta kirol jardueren eskaintza aurkeztu



Egape Dantza Taldeko kideak, artxiboko irudian. AIURRI

URNIETA "Egape bidaiak" ikuskizuna, Sarobe antzokian

Egape Dantza Taldeak ikuskizun bikoitza eskainiko du: 18:30ean helduak ariko dira eta 19:30ean, berriaz, gazteak. **Ekainak 16, igandea. Sarobe antzokia, Urnieta.**

du Andoaingo Udalak. Kirola. andoain.eus webgunean edo Allurralde kiroldegiko bulegoetan izena eman daiteke. **Izen-ematea: Ekainak 17-30.**

ASTEARTEA 18

URNIETA Bilera

Gaztelekuak 11-17 urtekoentzat ekitaldiz beteriko eskaintza aurkeztu du, uda honetarako. Gurasoei zuzendutako bilera deitu dute. Informazio gehiagorako telefono-zenbakia 608 928 311 da. **19:00, Gaztelekuak.**

ANDOAIN Entsegua

Agustin Leitza elkarteko kideen danborrada ekainaren 23an da. Egun horretan, kalez kale ibiliko dira eta emanaldi nagusia Goikoplazan eskainiko dute. **19:30, Ondarreta.**

OSTEGUNA 20

ANDOAIN Deialdia

2024/2025. denboraldirako izen-ematea zabalik dago. Azken eguna ekainaren 20a izango da. **Informazioa: Leizaran eskubaloit taldea.**

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Segundo premio
Larunbata, 15.
19:30, 22:00.
Igandea, 16.
19:30.
Asti, 17. 19:30,
22:00.

Lassie (Una nueva aventura)
Lar, 15. 17:00.
Ig, 16. 17:00.

Se abre la veda
Larunbata, 22.
19:30, 22:00.
Ig, 23. 19:30.
Asti, 24. 19:30.
Astr, 25. 19:30



SINOPSISIA



Segundo premio

Zuzendaria: Isaki Lacuesta. **Gidoia:** Isaki Lacuesta, Fernando Navarro. **Aktoreak:** Daniel Ibañez, Cristalino, Stephanie Magnin, Mafo, Chesco Ruiz, Edu Rejon... **Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, musika. **Iraupena:** 109 m.

Los Planetas musika-taldea da filmaren inspirazio-iturria

Granada, 90eko hamarkadaren amaiera. Eferbeszentzia artistiko eta kultural betean, indie musika talde batek bere unerik delikatuena bizi du: baxu-jotzaileak bandarekin hausten du bere lekua musikatik kanpo bilatuz, eta gitarra-jotzailea bere burua

suntsitzeko espiral arriskutsu batean murgilduta dago. Bitartean, kantariak hirugarren diskoa idazteko eta grabatzeko prozesu zail bati aurre egin beharko dio. Inork ez daki disko horrek betiko aldatuko duela herrialde osoko eszena musikala.



andoaINDARRA
euskaraz



AIURRI

Erakusketa zabalik, Basteron

Maddi Zumalabe Irastorza artistaren 'Laua eta Sakona' erakusketaren irekiera-ekitaldia aurreko ostiralean egin zuten. Jendetza elkartu zen lehen hitzorduan. Hernaniarrak konposizio abstraktuak lantzen ditu eta, asteotan, bere obra ikusgai egongo da Bastero Kulturguneko erakusketa-aretoan. Jende ugari hurbildu zen bertara.



UDALA

Ikasleen erakusketa, Lekaion

Urrietako marrazketa eta pintura ikastaroa amaierara iritsi da, ikasleek denbora tarte horretan egindako erakusketarekin. Lekaio Kultur Etxean ikusgai dago, egun hauetan. Interesa duenak ez dezala gerorako utzi bisitaldia, datorren asteartean amaituko baita (ekainak 18). Lekaiora sartu eta bisitariak berehala aurkituko ditu artelanak paretetan itsatsita.

Prestakuntza-saioak, Beterri-Buruntza Mankomunitatearen eskutik

“Ekonomia berdea enpresaren lehiakortasunerako” programa-rekin, elkarrizketak eta prestakuntza-saioak antolatu ditu Beterri-Buruntzaldeko Mankomunitateak, eskualdeko eragileen ingurumen izaerako beharrak eta kezak argitara emateko. Doakoak dira hitzorduak eta

enpresen iraunkortasuna lantzeko sektore ekonomiko zehatzetara zuzenduta dago jardunaldia. Lehen ekainaren 12an izan zen, Astigarragan. Lehen sektoreko eragileak eta sagardogileak izan ziren hartzaileak.

Datozen bi saioak:

- Ekainak 20, 09:00-11:00. Urnietan, Lekaio. Industria txiki eta ertainei zuzendutako saioa.
- Ekainak 20, 13:00-15:00. Lasarte-Oria, Villa Mirentxu. Zerbitzuen sektoreari lotutako saioa.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Irati Fernandez
Ekainaren 4ean 9 urte bete dituzu, zorionak Irati! Muxu handi bat etxekoan partez!



ANDOAIN
Elisabet Gallo Aizpurua
Ekainaren 28an urteak beteko dituzu. Urte askotarako! Muxuak etxekoan partetik.

GIPUZKOA

Ekin.

Gipuzkoa oparagoa izateko.

Zaindu.

Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.

Ondo eta duin bizi daitez.



GIPUZKOA
Foru Aldundia

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Apirilaren 19an ekin zenioten jar-
dunari. Martxa hartu al diozue,
dagoeneko?

Abiatze ona eduki genuen, bai-
na arraroa izaten ari da azken
asteetan, gogorra. Finean, lo-
herria da Urnieta pertsona as-
korentzat, geroz eta tokiko
denda gutxiago daude eta he-
rriari bizitza egiten duten gutxi
horiek ezagunak zaizkien to-
kietara jotzen dute. Ez da erra-
za, hortaz, horri guztiari buel-
ta bat ematea eta askotariko
adinetako jendea gerturatzea.
Zuen aurretik, ia lau hamarkada
zeramatzan Goi Mendik. Ardura
dakar horrek?

Izen-aldaketak eragina izan du,
bai, jendea ohituren zalea de-
lako. Kandela izen berezia da
guretzat, hil zitzaigun alabaga-
tik ipini dugulako. Omenaldi
modukoa da berarentzat, jada,
ez delako gurekin. Bestela, ziur
aski, izena bera mantenduko
genuke.

Zein da zuen ordutegia?

Goizeko 08:00tatik gaueko
22:00ak arte irekitzen dugu aste
barruan. Udan, luzatu egingo
dugu ordutegia. Asteburuetan,
berriz, 10:00tatik goizeko 03:00k
arte egiten dugu lan. Eguerdian,
ez dugu ixten. Zentzu horretan,
adin-tarte guztiei erreparatu
nahi diegu, nahiz eta, gehienbat,
gurasoak, jende heldua etorri.

Nolakoa da herria barra barrutik
bizitza?

Urte asko eman ditut ostalari-
tze lanean eta gertutik ezagu-
tzen dugu tabernako jarduna.
Lasarte-Orian bizi naiz, baina
denbora-tarte luzea ematen dut
Urnietan. Zure galderari erant-
zunez, konplexua da gaia, beg
irada aldatu beharra daukazu-
lako barra barruan sartzen
zarenean.

"Eskaintza berritzailea bermatu nahi dugu Kandelan"

TXEMI MARTIN URNIETAKO KANDELA TABERNAREN JABEA

Orain bi hilabete ireki zituen atea Kandela tabernak. Ez da batere erraza izan
hastapena jabeentzat, baina proposamen berriak eskaini nahi dizkio herriari



Asteburuetan, goizeko ordu txikiak arte dago irekita Kandela. AIURRI

Jende askok animatzen zigen
taberna irekitzera, baina aste
barruan ez da jenderik ibiltzen
kalean. Horren aurrean, lanean
jarraitzea besterik ez zaigu gel-
ditzen.

Gazte Festetan talo-potea izan zen
Kandelan, ostiralean; larunbatean,
mojitoak egin zenituzten. Era berean,
DJak izan ziren asteburuan eta
zuzeneko musika, igandean. Bes-
telako eskaintza bat bermatzeko
motibazioz al zabilzate?

Hori da, eskaintza berritzailea
bermatu nahi dugu Kandelan.
Zaila da, ostera, Urnietako Uda-
lak ere ez duelako ezertan la-
guntzen. Oztupoak jartzen di-
tuzte egunerokoan, baita festetan
ere.

Ekarpena egin nahi diogu
herriari, baina zaila da.
Erraztasunak ipintzea eskatzen
dugu, besterik ez. Iraupen-
lasterketa da eta, pixkanaka,
herrian toki bat nahi dugu,
jendeak ere, bere aisialdian,
kontuan har gaitzan.

Ildo horretan, aurrera begira, udan,
zuen eskaintza zabaltzeko asmoz
al zabilzate?

Uzten badigute, bai. Musika
jartzen dut nik, eta, arratsaldeak
girotu nahi ditugu eta propo-
samen berriak pentsatzen ja-
rraituko dugu. Pixkanaka-pix-
kanaka egingo dugu aurrera,
hasierak ez baitira inoiz izan
errazak. Hortaz, proposamen
berriak egiten segituko dugu,
herriari beste zerbait eskain-
tzeko asmoz.

"HERRIARI BESTE
ZERBAIT ESKAINI
NAHI DIOGU
KANDELA
TABERNAN"



egunean behin?

Egunean Behin
150 martxan da!

ALTUNA
SAGARDOTEGIA - SIDRELLA

Eskariak: 943 554 917 - 650 266 925

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna_sagardotegia

"Aurri" taldeko
asteroko zozketa:
Altunako sagardoa